

PERTSONA SOZIETATEAK

SOZIETATE KOLEKTIBOA

- **Kontzeptua eta ezaugarriak**

- Sozietate orokorra (Frantziako Ordenantzak –1673-), Merkataritzako Konpainia (Bilboko Ordenantzak –1737-), Sozietate Erregular Kolektiboa (Merkataritzako Kodea –1885)
- Izaera pertsonalista, merkataritzakoa, kanporantzakoa (Merkataritzako Erregistroa), sozietatearekiko bigarren mailako erantzukizun mugagabea eta bazkideen artean erantzukizun solidarioa
- Gaur egungo Sozietate orokorra

- **Eraketa eta forma**

- Eraketa akordioa kontratuan gauzatu, eskritura publikoan formalizatu eta Merkataritzako Erregistroan inskribatu
- Eraketa eskritura publikoa (MK 125 art.)
 - Bazkideen izen-abizenak eta helbideak
 - Arrazoi soziala
 - Sozietatearen izenpea –firma soziala- izango duten bazkideen izen-abizenak eta helbidea
 - Kapitala
 - Konpainiaren iraupena
 - Bazkide bakoitzari bere gastuetarako esleitutako diru kopurua
 - Bazkideek ezarri nahi dituzten legezko akordioak
 - Estatutuak
- Sozietate kontratua edo estatutuak aldatzeko bazkide guztien adostasuna behar da. Baina aldeztatik aurreikusitako hainbat aldaketarako gehiengoa ere onartu egiten da.
- Bazkide kolektiboak sozietate kolektiboan zein komanditario sinplean sozietateak izan daitezke (kontu bateratuak –MK 41.2)

- Arrazoi edo firma soziala (MK 126 art.)
- Bazkide guzti edo batzuen izenak, batzuen izanez gero “eta Konpainia –eta Cia.-“ espresioa. Beti “sozietate kolektiboa” edo “S.K.”
- Konpainiakoa ez den baten izena sartzea debekatuta dago
- Kanpoko baten izena sartuz gero, horrek zor sozialez erantzungo du baina ez du bazkide izaera eskuratuko

- Barne erlazio juridikoak
- Bazkideek ekarpenak egiteko betebeharra (MK 116.1 art.): dirua, kredituak, ondasunak edo *industria* (MK 125 art.)
- Sozietatearen administrazioa
 - Bazkide guztiek kudeatu egingo dute (MK 129 art.). Administratzaile guztiek *beto eskubidea* –barne ondorioak- izango dute (MK 132 art.)
 - Izendapenik badago, ezin izango da izendapena errebokatu, bai laguntzaile bat izendatu eta epailearengana jo bazkide administratzaile horren kontratu partziala deusezta dezan.
 - Izendapenik ez badago, bazkide guztiek har dezakete parte administrazio eta kudeaketan.
 - Administrazioa amankomunean (gehiengoaz) edo era bananduan eraman daiteke. Akordiorik ez balego, beto eskubidea gauza daiteke.
 - Bazkide ez diren pertsonak sozietatearen administrazioa eramateko aukera dute (MK 129 art.)
 - Sozietatea eta administratzailearen arteko erlazioa ordezkapen organikoarena da (MK 144 art.).
 - Administratzaileen aurkako erantzukizuneko akzioa.
 - Bazkideen *informazio eskubidea* (MK 133 art.)
 - Bazkideen leialtasun betebeharra (MK 136 -138 art.):
 - Industria bazkideak ezin du bere kontura jardun, sozietatearen baimena salbu.
 - Gainerako bazkideek ere ez, sozietateak objektu zehatza ez badu. Dena den, baimen tazitua onartu egiten da (MK 136 art.).
 - Objektu zehatza badu jarduera desberdinarekin lehiatu dezakete. Eta sozietateak baimena emanaz gero, bazkideek lehiatu dezakete sozietatearen jarduera berberarekin (MK 137 art.).

- Bazkide administratzailearen izendapena erreboka ezina (MK 132 art.)
- Emaizetan parte hartzea
 - Sozietate eskrituran ezarritakoaren arabera (MK 140 art.)
 - Bazkide kapitalistak eta industrialak (MK 141 art.)
 - Bazkide kolektiboak sozietateak direnean (SAL 9. atala VII kapitulua)
- Kanporantzako erlazio juridikoak: sozietatearen ordezkapena (MK 132art.)
 - Sozietatea ez da lotua geratuko ordezkariak ez diren bazkideek egiten dituzten egintzetara (MK 127 art.)
 - Ordezkapen eremua, besterik esaten ez bada, zabala eta mugagabea da (MK 127 art.). Baina objektu zehatza egonez gero eta ordezkapena badago, nahikoa da.
 - Erantzukizuna zor sozialengatik (MK 127 art.)
 - Sozietatearen ondarea
 - Bazkideen bigarren mailako erantzukizuna edo subsidiarioa (MK 237 art.)
 - Bazkideen erantzukizun solidarioa

SOZIETATE KOMANDITARIO SINPLEA

- **Nozioa eta ezaugarriak (pertsona sozietatea)**
 - Pertsona sozietatea
 - Merkataritzako sozietatea
 - Bi motatako bazkideak: bazkide kolektibo eta bazkide komanditarioak
 - Sozietatearen deitura (normalean subjektiboa)
 - Egungo garrantzia
- **Eraketa**
 - Eraketa kontratua eskritura publikoan egiletsi eta Merkataritzako Erregistrora eraman (MK 145 art.)

- Eraketa kontratuaren edukia: bazkideen izenak, ekarpenak eta akordioak hartzeko gehiengoak (MEE 210 art.)
- Eraketa kontratuaren aldaketa
 - Desegite partziala epailearen erabakiz (MK 132 art.)
 - Eraketa kontratuaren aldaketa bazkide guztien adostasunez (MEE 212.1 art.)

- **Barne erlazio juridikoak**

- Bazkide kolektiboak eta bazkide komanditarioak (MK 148.2 art.)
- Bazkide komanditarioaren ekarpena eta erantzukizunaren muga
- Galera eta irabazien partizipazioa (MK 141 art.)
- Bazkide komanditarioak ezin du kudeaketan parte hartu (MK 148.4)
- Bazkide komanditarioaren informazio eskubidea (MK 150.2 art.)

- **Kanporako erlazioak**

- Sozietatearen ordezkapena bazkide kolektiboek izango dute
- Bazkide komanditarioak erantzukizun mugatua dauka ekarpenaren arabera (MK 147 eta 148 artikulua)
- Bazkide komanditarioak erantzukizun mugagabea izango du bere izena sozietatearen deituran jasotzen bada (MK 148.3 artikulua)
- Bazkide kolektiboak erantzukizun mugagabea dauka

AKZIOZKO SOZIETATE KOMANDITARIOA

- Kapital sozietatea da (MK 151 art.), kapitala akzioetan banatuta dauka eta bazkide kolektibo eta komanditarioak ditu.
- Bere erregulazioa sozietate anonimoarena da (MK 152 art.)
- Ezaugarriak:
 - Bazkideak akziodunak dira
 - Bazkide kolektiboak eta komanditarioak egongo dira, kolektiboek kudeaketa eramango dute eta gutxienez bat

egongo da (MK 157 art.). Sozietate Anonimoaren administrazio organoaren erregulazio berbera izango dute.

- Sozietate Anonimoaren Legearen erregulazio aplikatuko da ere ondoko gaietan: administratzailearen aldaketa; sozietatearen objektua; sozietatearen iraupenaren jarraipena (bazkide guztiek ados egon behar dute); bazkide administratzailea hiltzen bada, sozietatea desegin egingo da, bazkide kolektibo berri bat sartzen ez bada ondoko 6 hilabetetan.
- Sozietatearen deitura (MK 153 art.)